

Idazlanak eta eskutitzak

Dionisio Amundarain

Maizpide Euskaltegiko Irakasleei: 1988ko EGA azterketan 25 + 24 + 16 lagunena aztertu ondoren bildutako zenbait gogoeta.

1. EGITURA ANALITIKOAK

Egiturak —izen sintagmak, aditz sintagmak, perpausak— ez dira ego-ki lotzen, minimoki ere. Adibide batzuk (komatxo artekoa hitzez hitz hartua da).

- Herria gustatzen zait, «baina ez nola dagoen banatuta aldetik».
- «Eman behar diogun laguntza, benetakoa izan behar da».
- Gure mutilari ardoa erostera bidaltzen zion.
- «Otza asko egiten bait zuen».
- Eskolaren «ondoan kotxek pasatzeko bidea egitea bururatu zaie».
- «Eskutitz hau kontutan egongo duzulakoan».
- Lehioa.
- (Puntualki ari delarik) «lehioa irekitzen dut».
- «Ez al didazu ezagutzen?»
- «Zihur al zaude zure etxea, lagunak, e.a. uztea nahi dituzula?»
- Altxatu egiten *nahiz*.
- «...leku bat non gizonak ez bait ezin zuten ikusi».
- «Nire anai-arrebarekin».

- «Hega egitea ikasi baino lehen».
- «azkenean hega egiterik baze- goen».
- «ikus izan nezakeen nire gorpu- tza».
- Baina nire ikusmina «haundi- tzen joaten zen» (zihoanen or- dez).
- «ez zidaten jaramonik haundi- rik egiten».
- «Nik bakarrik librea bizitza pentsatzen nuen».
- «Romatarren».
- «Garaian («sasoian»en ordez) dagoen pertsona».
- «Gorputzaren ahalmenak asko dauka esateko».
- «Parkearen berrietak ez dizki- gula ezer gustatu esan behar di- zut».
- «Hirigintza planoren aurre- proiektua».
- «ez ditugu lurtean dauden zu- loak jasan behar» («ez daukagu zertan jasanik...» esan ordez).
- «osasungarria dela ez dugu pentsatu behar» («ez dugu zer- tan pentsaturik» esan ordez).
- «Pasadizoz aparte».

2. ZENBAIT ERITZI-GOGOETA

- Oso adjetibo gutxi erabiltzen da: izenak, aditzak, adberbio batzuk...

- Esaldiak oso kategorikoak izaten dira gehienetan: dena edo ia dena indikatiboan, aginteran; modifikatzaile gutxi: «omen», «ote», «esango nuke», «egingo nuke», «delakoan nago», «neure eritzi edo uste apalean»... Ia inoiz ez da ageri horrelakorik.
 - Esakera jator gutxi ikusten da; ezer ez, esateko: «inor gutxi etorri zen», «ez dago zertan esanik», «bertan behera utzi zuten lan guztia», «ez uste izan hori dela bidea»... Horrelakorik ez da ikusten. Horrela, idazlanei eta eskutitzei laborategi-usaina darie; hotz, lehor, buru-borobil, gozo-gabe... gertatezen dira.
 - Gaia garatzeko era oso primarioa da gehienetan. Gaia bera ez dela ezagutzen minimoki ere nabari ohi da: axaletik hartzen dira, ertzetik ez denean; zentzurik gabeko betelanez hornitu behar izaten dira, pare bat orrialde osatzeko.
- ### 3. KONKLUSIO GISARA
- Garbi nabari da jendeak oso gutxi irakurtzen duela.
 - Gutxienik, irakurritakotik oso gutxi norberegantzen duela: irakurtzen badu ere, ez duela dijeritzen. Hala, arazo batez aritzean, barne-loturarik gabeko eritzi edo esaldi-pilaketa huts gertatzen dira idazlanak. Ez dute azaltzen norberaren erizpiderik, ez norberaren ikusmodurik.
 - Bestalde, hutsegite analitikoetan zera nabari da: utzikeria, ardurarik eza.
 - Horiek horrela, behar hau nabari da:
 - Adjetibizazioa landu beharra.
 - Absolutuki aritzea baztertu, eta erlatibokiago, matizatuago ihardun beharra.
 - Erdal interferentziak baztertu eta euskal esakera arruntak landu beharra.
 - Eskema logiko eta pertsonalak egiten saiatzea.
 - Handik eta hemendik hartutako eritziak eta esanak nork bere garun-labeen egosten saiatzea, kutsu pertsonalagoa eta, bide batez, sozialagoa eman ahal izateko.